



BETELUKO UDALA  
31890 BETELU  
(Nafarroa)

**BETELUKO ARAXES ESKOLAN AUTOKONTSUMO KOLEKTIBORAKO INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAREN HORNIDURA ETA MUNTAKETA KONTRATATZEA**

Betelun, 2025eko urriaren 30ean.

Beteluko Udaletxean, goizeko hamabiak direnean, Beteluko Araxes eskolan autokontsumo kolektiborako instalazio fotovoltaikoaren hornidura eta muntaketa kontratatzeke espedientean aurkezturiko eskaintzak aztertzeke kontratazio mahaia osatu da:

Kontratazio mahaia ondoko kide hauek osatzen dute:

Lehendakaria: Lorenzo Zubillaga Goicoechea, Beteluko Udaleko alkatea.

Bokalak:

- Iñaki Elizalde Zubillaga, Beteluko Udaleko zinegotzia.
- Igor Otermin Eguia, Beteluko Udaleko zinegotzia.
- Unai Jiménez Villanueva, proiektua idatzi duen taldeko kidea.
- Joanes Aleman Olo, Beteluko Udaleko idazkaria.

Kontratazio honen parte diren lanak, Kontratu Publikoen apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeari jarraiki, atalase komunitarioaren azpiko prozedura ireki bidez esleitu dira.

Lizitazioaren iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu ziren.

Honako eskaintza hau aurkeztu ziren epe barnean eta modu egokian:

- Ekilor Energías Renovables SL, B20980918. Erregistro kodea 178469, 2025eko irailaren 24koa.
- Effective Energy SLU, B71168918. Erregistro kodea 178510, 2025eko irailaren 24koa.
- Alkubo Ingeniería S.L., B71466601. Erregistro kodea 178507, 2025eko irailaren 24koa.
- Metallbau solar SL, B31780968. Erregistro kodea 178425, 2025eko irailaren 24koa.

Lizitatzailerik behar bezala aurkeztu du lehenengo gutunazalean eskatutako dokumentazioa eta ondorioz, Kontratazio Mahaiak ondorengo eskaintzailerik onartu ditu:

- EKILOR ENERGÍAS RENOVABLES SL.
- EFFECTIVE ENERGY SLU
- ALKUBO INGENIERIA S.L.
- METALLBAUEN SOLAR SL

Segidan eta barne ekitaldian hau ere (2025eko irailaren 25ean), Kontratazio mahaia onarturiko lizitatzailerik "formula bidez zenbagarriak ez diren irizpideei buruzko



**BETELUKO UDALA**  
31890 BETELU  
(Nafarroa)

dokumentazioa" izeneko gutunazalaren irekiera eta azterketari ekin zion, esleipen irizpideei dagozkien puntuak eman asmoz, formula bidez zenbagarriak diren irizpideei dagozkienak izan ezik.

Honi dagokionez, Kontratazio Mahaiak ondokoa onartu zuen:

| Parte hartzaileak | Ekipamenduaren ezaugarri teknikoak | Ezarpen eta deskripzioaren zehaztasuna | Berme epean mantentzea | Hobekuntzak | Monitorizazioa | Guztira |
|-------------------|------------------------------------|----------------------------------------|------------------------|-------------|----------------|---------|
| Alkubo            | 17                                 | 6,5                                    | 3                      | 2           | 2,2            | 30,7    |
| Effective         | 16                                 | 5                                      | 4                      | 2,2         | 2,2            | 29,4    |
| Ekilor            | 14                                 | 6.5                                    | 3,5                    | 2,3         | 2,2            | 28,5    |
| Metallbauen Solar | 13                                 | 3                                      | 3,5                    | 2           | 0              | 21,5    |

2025eko urriaren 16an, prozesu honetan onartu diren lizitatzzaileen 3. gutun-azala ("Formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") ireki zen eta ikusita Alkubok, Effective Energyk eta Metallbauen Solarrek aurkeztutako prezioa lizitazio prezioa baino %30 edo txikiagoa zela prezio horien justifikazioa eskatu zitzaizen Kontratu Publikoen 2/2018 Foru Legearen 98. Artikuluarekin bat.

Justifikazio horiek jasorik onartu egin dira (Unai Jimenez teknikariak txostena egin du).

Horrela bada, ondoko hauek dira formula bidez zenbagarriak diren irizpideen puntuaketa:

| Parte hartzaileak | Exekuzio epearen murrizketa | Berme epea       | Prezioa                      | Irizpide sozialak | Guztira     |
|-------------------|-----------------------------|------------------|------------------------------|-------------------|-------------|
| Alkubo            | 5 puntu (35 egunean)        | 5 puntu (8 urte) | 40 puntu (38.625,00 euro)    | 10 puntu          | 60 puntu    |
| Effective         | 5 puntu (35 egunean)        | 5 puntu (6 urte) | 32,25 puntu (47.899,89 euro) | 8 puntu           | 50,25 puntu |
| Ekilor            | 5 puntu (35 egunean)        | 5 puntu (6 urte) | 30,78 puntu (50.194,62 euro) | 10 puntu          | 50,78 puntu |
| Metallbauen Solar | 5 puntu (35 egunean)        | 5 puntu (6 urte) | 32,25 puntu (47.900,62 euro) | 10 puntu          | 52,25 puntu |



**BETELUKO UDALA**  
31890 **BETELU**  
(Nafarroa)

Formula bidez zenbagarriak ez diren irizpideen puntuaketa eta formula bidez zenbagarriak diren irizpideen puntuaketa kontuan izanik hauek dira emaitzak:

| Parte hartzaileak | Formula bidez ez zenbagarriak | Formula bidez zenbagarriak | Guztira     |
|-------------------|-------------------------------|----------------------------|-------------|
| Alkubo            | 30,7                          | 60                         | 90,7 puntu  |
| Effective         | 29,4                          | 50,25                      | 79,65 puntu |
| Ekilor            | 28,5                          | 50,78                      | 79,28 puntu |
| Metallbauen Solar | 21,5                          | 52,25                      | 73,75 puntu |

Hau dena ikusita, Mahaiak erabaki du kontratazio-organoari proposatzea Beteluko Araxes eskolan autokontsumo kolektiborako instalazio fotovoltaikoaren hornidura eta muntaketaren kontratua honako honi esleitzea:

**Enpresa:** Alkubo Ingeniería SL **IFZ.:** B71466601  
**Helbidea:** Avenida Barañain 52, 31008, Iruñea (Nafarroa).  
**Lizitazio prezioa:** 68.429,45 euro (BEZ kanpo)  
**Esleitutako prezioa:** 38.625 euro (BEZ kanpo)  
**Lizitazioarekiko prezioaren aldaketa:** %43,55 behera

Aurkeztutako dokumentazio guztia espedienteari erantsita geratzen da.

Lehendakariak eguerdiko ordubi eta erdiak direnean eman du bukatutzat bilera.

Egindakoaren konstantziarako akta idatzi dut eta lehendakariaren eta bokalen sinadurarako prest utzi dut; fede eman dut

Betelun, 2025eko urriaren 30ean.

Alkate-Lehendakaria

Lorenzo Zubillaga Goicoechea

1º Bokala

Iñaki Elizalde Zubillaga

2º Bokala

Igor Otermin Eguia

3º Bokala

Unai Jimenez Villanueva

4º Bokala

Joanes Aleman Olló



**BETELUKO UDALA**  
**31890 BETELU**  
(Nafarroa)